Ebazpena, 2019ko maiatzaren 29koa, Hezkuntza Saileko Langileak Kudeatzeko zuzendariarena, 2019/2020 ikasturtean hezkuntza-premia berezietako ikasleekin zerbitzuak emateko zenbait lanpostu —zerbitzu-eginkizunen edo, hala behar balitz, behin-behineko esleipeneko erregimenean— betetzeko deialdia egin duen 2019ko maiatzaren 15eko ebazpena aldatzen duena.

2019ko maiatzaren 15eko Hezkuntza Saileko Langileak Kudeatzeko zuzendariaren ebazpenaren bidez 2019/2020 ikasturterako hezkuntza-premia berezietako ikasleekin zerbitzuak emateko zenbait lanpostu —zerbitzu-eginkizunen edo, hala behar balitz, behin-behineko esleipeneko erregimenean— betetzeko deialdia egin zen.

Aipatu ebazpenean zuzendu beharreko hutsak atzeman dira eta Herri Administrazioen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legeak, bere 109.2. artikuluan dioenari jarraiki, "Herri-administrazioek, beren kabuz edo interesdunek eskaturik, edozein unetan zuzendu ditzakete beren egintzetako errakuntza materialak, egitezkoak edo aritmetikoak".

Horiek horrela, eman zaizkidan eskumenez baliaturik,

EBATZI DUT:

Lehenengoa.- 2019ko maiatzaren 15eko Ebazpenaren I. Eranskina zuzentzea, ondoren ezarritakoaren arabera:

- **A atalean:**

1. Honako hau esaten denean:

   ARABAKO ORDEZKARITZA IBILTARIA
   (LAKUABIZKARRA, SAN IGNACIO, SANTA MARÍA, ARANBIZKARRA, URKIDE)

   Honako hau esan behar da:

   ARABAKO ORDEZKARITZA IBILTARIA
   (LAKUABIZKARRA, SANTA MARÍA, URKIDE, SAN MARTÍN, ARANBIZKARRA)

2. Euskerazko bertsioan, honako hau esaten denean:

   CEIP BASURTO HLHI (BILBAO)
   ELKARTZE IKASTETXEA
   - Pedagogia Terapeutikoa espezialitatea duen maisu-maistra

   Honako hau esan behar da:

   CEIP BASURTO HLHI (BILBAO)
   ELKARTZE IKASTETXEA
   - Entzumena eta Hizkuntzan espezialitatea duen maisu-maistra

- **C atalean erderazko bertsioan:**

3. Honako hau esaten denean:

CUPO DELEGACIÓN ARABA CEIP TOKI EDER
CUPO DELEGACIÓN ARABA CEIP JOSE MIGUEL DE BARANDIARAN HLHI
CUPO DELEGACIÓN ARABA CEIP DULANTZI HLHI

Honako hau esan behar da:

CUPO DELEGACIÓN ARABA CEIP TOKI EDER–ITINERANTE
CUPO DELEGACIÓN ARABA CEIP JOSE MIGUEL DE BARANDIARAN HLHI-ITINERANTE
CUPO DELEGACIÓN ARABA CEIP DULANTZI HLHI-ITINERANTE

Bigarrena.- Eskabideak aurkezteko data berria ezartzen da, 2019ko ekainaren 7ra arte (egun hori barne), aldaketa hauen eragina izan duten pertsonentzako bakarrik. Hau da, ezin izango dira eskari berriak aurkeztu, edo aurkeztutakoak aldatu, berdin mantendu izan balira nahiz eta aldaketa hauek eman.

ERREKURTSOAK

Bide administratiboa bukatzen ez duen ebazpen honen kontra, gora jotzeko errekurtsoa jarri ahal izango zaio Administrazio eta Zerbitzuen sailburuordeari hilabeteko epean, argitaratu eta biharamunetik aurrera, betiere Herri Administrazioen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 112.1 artikuluari dagokionez, 121.artikuluan eta hurrengo artikuluetan xedatutakoaren arabera.

Vitoria-Gasteizen, 2019ko maiatzaren 29an.

Jon Agirre Huerga
LANGILEAK KUDEATZEKO ZUZENDARIA